



GOIMEN. LAN ESPARRUAK

Goimenek zerbitzu anitz eskaintzen ditu, bai udalei zein baserritar erakundeei. Oro har aholkularitza eta diru laguntzak bideratzea izaten da. Horretarako, Elkartean bi teknikari eta administrari bat daude lanean.

Urteko proiektuak Ekintza Planetan jasotzen dira, beren adierazle eta baliabide taularekin. Ekintzaren arabera, Goimenen egitekoa desberdina izaten da, orokorrean inplikazioa hiru mailatan banatuz:

- Eragile edo sustatzaile
- Koordinatzaile eta bitartekari
- Suspertzaile.

Hiru ardatzei jarraikiz, ondorengo ekintza mota aurreikusten dira:

A. NEKAZARITZA.

Zerbitzuak garatzea:

- Makineria zerbitzuak: belar bolak egiteko, konpostadora, belardi hobekuntza, ...
- Egitura amankomunatuak bultzatu: almatzen, kooperatiba.
- Purinaren banaketa, belar bolen plastiko biltzea...
- Ordezkapen eta eskulan zerbitzuak egokitu.

Ekoizpen gaiak:

- Produktu alternatibo/berriak bultzatu: basatxerria, arrautza, gazta-zarra, ...
- Alderdi produktiboen hobekuntza: belardi, simaur gestioaren azterketa, zelaieko drenajea.

Merkaturaketa:

- Eraldaketa eta merkaturaketa egitura bateratuak bultzatu: gaztandegia, babarrun zentroa, oilasko hiltegia...
- Komerzializazio bide berriak bilatzea: baserriko esnea, baserriko salmenta puntuak, jangela kolektiboak...
- Azokak egokitu eta eguneratzea: asterokoak, bereziak



- Azpiegitura erosketak lagundu: karpa, saltokiak, mahaiak, balantzak...

Lurraren inguruko ekimenak

- Agroaldea proiektuak bultzatzea.
- Lur banku zerbitzua dinamizatzea
- Lur sailak berreskuratzea
- Nekazaritza bokazioa duten lur eskaintza ahalmentzea

B. HERRI ETA AUZOETAKO BIZI KALITATEA.

Herritartasuna eta giza-harremanak sustatu:

- Bilguneak sortu: gazte, heldu zein zaharrentzat lokalak prestatu, plaza inguruak txukundu...
- Auzo elkarten funtzionamendua indartu, partaidetza bultzatuz: ikastaro antolaketa, kultur ondarearen berreskurapena...

Zerbitzuak garatzea:

- Herri ostatuaren zerbitzua bermatzea.
- Postontziak; herri, auzo eta baserrien seinalizazioa
- Bide garbiketarako desbrozadora zerbitzua

Hezkuntza, Osasun zerbitzuak:

- Haur eskolak bultzatzea (haurtzaindegien sorrera).
- Gizarte zerbitzuen garapena

C. GARAPEN SOZIO-EKONOMIKOA.

Oinarrizko azpiegiturak:

- Baserri bide sarea mantentzeko plangintza.
- Herriko ur sarea osatu eta egokitu.



- Teknologia berrien garapena

Jarduera ekonomikoak dibertsifikatzea:

- Landa turismoa bultzatzea.
- Ibilbideak egokitu eta natur ondorea berreskuratu.
- Bertako kulturaren oinarritutako erakusketak prestatu,...
- Teknologia berrien aukeretan oinarrituz aktibitateak erakarri.
- Herritarrei bideratutako zerbitzuetan oinarritutako lanpostuen sorrera

Ingurumenaren zaintza bermatu:

- Nekazaritza iraungarriaren alde egin.
- Baserriaren funtzioaniztasuna: landare-hesien erabilpena, simaurraren gestioa, nekazaritza ekologikoa
- Biztanleria sentsibilizatu eta udalen partaidetza sustatu: landa garapen sariak, Landarlan taldearen sorrera.
- Parke Natural eta Natura 2000 sareko natur baliabideen babesa.